



Korrontzi taldearen musika ibilbidea 2004an hasi zen Agus Barandiaran trikitilariaren eskutik, Euskal Herriko folk musikazale amorratua, trikia du pasioa eta kea aterako dio ahal duen guztietan. Korrontzi taldea horretarako osatu zuen, ikusten baitzuen bazela tokitxoa Korrontzi bezalako talde batentzat Euskal Herrian eta baita kanpoan ere. Baina balditza batekin: gauzak eta batez ere musika, txukun egin eta behar duen babesa emanez. Asmoa beti hori izan da eta Euskal Herriko folkari ekarpenak egitea. Lan berri honek asmo berberak ditu, ikuskizuna sortu ahalik eta toki gehienetara iristeko. Nolako ikuskizuna? Folk musika eta Euskal Herriko dantzak eta tradizioak uztartuta.

Oinkari Dantza Taldea 1975ean sortu zen Villabonan (Gipuzkoa). Hasieran dantza tradizional hutsa lantzen bazuten ere, 2003tik aurrera Edu Muruamendiarekin koreografoarekin kontaktuan jarri ostean, Oinkari Dantza Taldea eraldatu egin zen proposatutako aldaketek emaitza bikaina jaso zutelako. Ohiko euskal dantzei koreografia garakidearen ukituak eman eta Oinkari Dantza Taldea eraberritu zen Eneko Arteaga eta Edu Muruamendiarekin.

Korrontzi taldea euren hirugarren diskoan ez dator bakarrik. Korrontzi & Oinkari Dantza Taldeak ikuskizun bat prestatu dute DVD euskarrian eta "Infernuko hauspoa" du izenburua. Audioak ETBko Miramongo estudioetan grabatu ditu Jimmy Martinek 2010eko maiatzaren 14an (3, 4, 6, 7, 9, 10, 11, 13, 14, 15 abestiak) eta Getxoko Tik-Trak estudioetan Alberto Rodriguezek 2010eko irailean (1, 2, 5, 8, 12, 16 abestiak). Nahasketa eta masterizazioa Ortuellako Groove estudioetan egin ditu Cesar Ibarretzek 2010eko urrian. Irudien grabaketak: 2010eko maiatzaren 14an, ETBko Miramongo estudioetan eta 2010eko urriaren 16an, San Juan de Gaztelugatxe (Bermeo) eta 17an Bilboko inguruetan. Irudi nahasketak, maketazioa eta edizioa: David Civicok egin ditu. Musikari gonbidatua: Mikel Romero (gitarra klasikoa eta bouzukia)

Korrontzi taldeak hirugarren diskorako gonbidatuak ekarri ditu edo hobeto esateko, aliatu egin da. Korrontzi taldeak eta Oinkari Dantza Taldeak ikuskizun bat landu dute, "Infernuko hauspoa". Korrontzi taldeak zerbait berezia egin nahi zuen eta bidean Oinkari Dantza Taldea gurutzatu zenean, ideak lainoak zeruan bezala argitu egin ziren. Musika eta dantza elkarrekin joan dira beti. Ez dago dantzatzan ez den musikarik esaldia kontuan hartuta, Korrontzi taldearen folk doinuak dantzatzera dator Oinkari. Musikaren sentsazioak ez dira soilik belarritik sartzen. Dantzaren plastizidadeak erabat lagun diezaiok musikari. Musikaren gailurra beste gailur batera eraman dezake. Dantzaren ikusmen soila polita da baina musika lagungarri dela, bien arteko eztanda ikusle-entzulearengan askoz indartsuagoa da. Berrogei dantzari folk musikarekin arimatuta. Korrontziren doinuetan oinarrituta, Oinkari taldeak dantza garaikidea eta Euskal Herriko dantza tradizionalak uztartu egin ditu. Dantza garaikidea, klasikoa eta Euskal Herriko dantzekin nahasketa bat egiten du Oinkari taldeak. Uztarketa, fusioa, batuketa, mestizajea. Beste hainbat hitz sar daitezke, baina horiek ongi erakusten dute Korrontzi taldearen doinuekin zer nolako dantza mota eskaintzen duen Oinkari Dantza Taldeak. Ikuskizunaren zaparradak klimaxak erraz lortzen ditu. Gori-gorian musika eta dantza. Zaparrada musika eta dantzan. Zaparradak dantzan musikarekin.

Korrontzi & Oinkari Dantza Taldearen "Infernuko hauspoa" proiektuan ikuskizunak (ikusten den hori) du helburu nagusia; hau da, dantzak eta musika ikusi entzuten den bitartean.

Aspalditik Korrontzik lehengo trikiti erritmo zahar haiek hartu eta beronen gainean gauza berriak proba eta eraikitzea dauka helburu nagusi bezala, Oinkarik bere aldetik dantzan ere asmo berdinak ditu, beraz gure bideak gurutzatu zirenean, burututako elkar lana jendeari erakustea geneukan helburu, horregatik DVD hau, tradizioa modernitatez jantzi dugu.

Euskal Herriko musika eta dantza tradizionalak bat eginik. Zergatik?

Nahiz eta erdi kasualitatez hasi ginen batera zuzenekoak eskaintzen, hasieratik oso kimika ona eduki dugu gure erlazioan, honek asko erraztu du lana eta Korrontziren musika dantzarekin hornitua ikustea guretzat betidanik eduki dugun ilusio bat betetzea izan da, gure musikak ez baitu zentzurik dantza gabe.

Korrontzi taldeak gero eta gehiago jo du Euskal Herriko kanpo eta Oinkari Dantza Taldea ikuskizunaren alde garrantzitsua da, ezta?

Gure zuzenekoan erdiak kanpoan izan: Frantzia, Portugal, Azores irlak, Alemania... Hemendik kanpo ikusleagoak, herri musika bezala hartzen ditu gure erritmoak, hau da, Euskal Herriko musikaren ispilu bezala, trikitixa edo alboka bezalako instrumentuak eramateak hori dakar eta gu oso gustora, gure herriaren enbaxadore bezala sentitu ohi izan gara askotan, beraz dantza ere gure errezetaren barruan sartu nahi izan dugu, osagai garrantzitsu bihurtuz.

ritxi aizpuru (2010eko abenduaren 2an)

Agus Barandiaran: trikitixak eta ahotsa

Iker Lope de Bergara: alboka, albokotea, whistleak, zeharkako flauta, panderoa, txistua, xirula eta ahotsa

Ander Hurtado de Saratxo: bateria, perkusioa, marinba eta bibrifonua

Kike Mora: baxua

Alberto Rodríguez: gitarra akustikoa, mandolina eta koroak



baga-biga musika ideiak
 telf. 618 072 076 /026
 www.baga-biga.com / info@baga-biga.com